

MAILOPETIK ZERURA

Azken Muga Proiektua
Zarate – 2016

Nafarroa Gipuzkoa
non hasi eta bukatu,
mugak banatzen baditu
muga berdinak elkartu,
Zaraten ekitaldiak
dira aurten antolatu,
aspaldiko kontua da
ez degu ezer asmatu,
baina ohitura galdu zen
jendea berriz zahartu,
orain berriz egin nahi da
eta ohitura indartu,
beraz irakurle maite
joan eta parte hartu.

Iñigo Gorostarzu

Hitzaurrea

2016. urteak, hankaz gora jarri du Aralarko Mailopea. Mendeetan zehar egundoko jendeen joan etorria bizitu dute historia luzeko eta kondaira aberatseko paraje hauek. Historiaurretik gune oparoa den Zarateko mendi lepoa AZKEN MUGA JAIALDIAREN sorleku bilakatu da. Ondorengo orrietan azaldu nahi genizuke bertan zer, nola eta zertarako aritu garen aurtengo uda sasoian zehar. Bizitzak definitiboki ibaien ondoan, aranetan behera egin duen XX. mendearen ostean, bortuari zor diogun eta jada galdua duen presentzia eta garrantzia itzuli nahi izan diogu, sinbolikoki bada ere.

Zeharkaleku, komunikabide, kultur zubi eta finean MUGA antzinakoari bere harrabotsaren oihartzuna egunera ekarri nahi izan diogu. Horretarako ezinbestekoa izan da bertako biztanle hurbilenekoekin hartu-eman estutzea, beraientzat eta beraian eta beraiekin egiteko pentsaturik sortua baita proiektua. Bedaio eta Azkarate hasi eta inguruetako gainontzeko herri guztien partaidetza eta ekarpena ezinbestekoak izan dira eta izango ere. Trikuharri, mairubaratza, errito, ermita, joko, erromeria, apustu-leku, mendiko lan eta muga postu izan da ingurumaria gizakiarentzat iragan urrunetik, XXI. mendean ordea dagokion era berrituan izandako garrantzi hura berreskuratu nahi dugu guztion artean. Lehen jardunaldiak laburbildu nahi izan ditu genituen asmo nagusiak eta aurrerantzean ere AZKEN MUGA JAIALDIAK bere tokia izaten jarrai dezan lanean segitzeko ahalegina egiteko prest gaude. Hala izan bedi.

Prólogo

El año 2016 ha puesto patas arriba el entorno de las Malloas de Aralar. Durante siglos estos parajes cargados de largas y ricas historias han conocido el ir y venir de mucha gente. El collado de Zarate, lugar importante desde la Prehistoria, se ha convertido en el lugar de creación del FESTIVAL AZKEN MUGA. En las siguientes páginas os querríamos explicar lo que hemos hecho durante el verano, el modo de trabajo y el objetivo de dicho festival. Después del siglo XX la vida ha descendido definitivamente a los ríos y valles y hemos querido, aunque sea simbólicamente, devolver a la montaña la presencia e importancia que ha perdido y le debemos. Hemos querido traer a la actualidad el eco de su fama a la antigua MUGA, lugar de paso y comunicación y puente cultural. Para ello ha sido necesario estrechar las relaciones con los vecinos más cercanos del lugar, ya que el proyecto nació pensando en ellos, con ellos y para ellos. Empezando por Bedaio y Azkarate, la participación y aportación de los demás pueblos del entorno han sido y serán totalmente necesarias. El entorno ha sido lugar de dólmenes, cromlechs, ritos, ermitas, juegos, romerías, apuestas, trabajo y puesto fronterizo para las personas desde un lejano pasado, pero entre todos queremos recuperar aquella importancia que tuvo del modo innovador que corresponde al siglo XXI. La primera edición ha querido resumir nuestras ideas principales y estamos dispuestos a seguir trabajando para que en adelante el FESTIVAL AZKEN MUGA siga teniendo su sitio. Así sea.

A Z K E N M U G A

Hiru kilometro besterik ez daude Bedaio eta Azkarate artean; muga batek bereizten ditu eta langa batek moztzen du pasabidea. San Fermin eta Bedaioko jaien inguruan ireki egiten da langa.

Azken muga proiektu kolektibo bat da, naturan modu iragankorrean esku hartzeko. Hala, arte-diziplina desberdinetako artistek hausnartu egingo dute gure artean dagoen gertaera anakroniko baten gainean: Gipuzkoako eta Nafarroako lurraldeak bereizten dituen muga. Proiektu hau dela tarteko, zonalde horretako biztanleak tartean sartu nahi dira modu partizipatiboan, hausnar dezaten edota ekoizpen artistikori hel diezaioten. Era berean, proiektuaren helburua da landa eta natura ingurunera eramatea adierazmen artistiko berriak eta abangoardistak.

Programa 2016ko udaran gauzatu da, Bedaio eta Azkarate herrien arteko mugan, Zarateko lepoan. Bi pagadi, bide bat, eraikin bat eta muga dira eszenatokiak, eta han, mugaren bi aldeetako artistek, bertako bizilagunekin batera, hainbat esku hartze egin dituzte eta ekitaldi artistiko, kultural eta jai giroko programazio baten protagonista izan dira, mugaren bi aldeak eta jendea elkartzeko asmoarekin.

Apenas tres kilómetros separan Bedaio de Azkarate, una muga los divide y una langa impide el paso, por San Fermín y fiestas de Bedaio la langa se abre.

Azken muga es un proyecto colectivo de intervención efímera en la naturaleza, en el que artistas de diferentes disciplinas artísticas reflexionan sobre un hecho anacrónico existente entre nosotros, la pervivencia de una frontera que limita el territorio gipuzkoano y navarro, pretendiendo involucrar a los habitantes de esta zona de forma participativa, tanto en la reflexión como en la producción artística, así mismo persigue trasladar a un entorno rural y natural formas de expresión artística novedosas y vanguardistas.

El programa se ha desarrollado en el verano del presente 2016, en la propia muga entre los pueblos de Bedaio y Azkarate, en el Collado de Zarate, dos zonas boscosas de hayas, un camino, una edificación y la muga han sido los escenarios en los que artistas de los dos lados de la muga, junto a vecinos del lugar han realizado diversas intervenciones y protagonizado una programación de actos artísticos culturales y festivos, uniendo las dos partes de Aralar y sus gentes.

Z E R

Ekimen honek, bere alderdi plastikoan, gogoeta bat egiten du gizarte harremani buruz. Hor sartzen dira: jarduera artistikoa, aktibismo artistikoa gizarte eraginarekin espazio publiko eta naturaletan esku hartzeko ekimenei dagokienez; hiriarri kentzea bere protagonismoa irismen ikonografiko, estetiko eta sinboliko handiko estrategi kulturaletan, eta protagonismo hori ematea ekimen periferikoei - berezkoz hartuz- edo jarduera artistiko horiek deszentralizatzea; paisaiaren eraikuntza kulturalaren erreferentziak eta interakzio

artistiko-estetikoak (Land Art, Artea eta Lurralde); antropologia eta/edo etnografia eta bere harremana artearekin, jarduketa multidiziplinarra lan eta interrelazioko metodo gisara, artistikoa gizarte adierazpen gisara, erresistentzia eta erantzuna barne; eta artearen eta kultura bisualaren arteko loturak. Jarduketa iragankorra eta gure harremana denborarekin eta esku hartzen den espazio naturalarekin; festa, elementu elkartzaile eta komunikatibo gisara; herritarren partaidetza, esku hartze artistiko modura.

Parte hartzen duten artistek -ikusirik bere horretan jarraitzen duela mugak, zatituz modu anakronikoz zonalde bat eta bertako jendea, iragan, hizkuntza eta bizi- tzeko modu bera duen jendea, ingurumen natural pribilegiatu batean- hausnarketa bat egiten dute hainbat gairi buruz: gertaera horretaz; oraingo gizartearen mugez; espazio naturalen zatiketa arbitrarioez; urrutiko botereek bertako jendeari egindako inposaketaz; bertakoa ez den ezezagunen batek marraztutako lerro batek herriak eta familiak bereizteaz; arau absurdu, arrotz eta barregarriak bete behar izateaz; naturan marrak egin, lurraz jabetu eta arrotzen batek lur horiek ez zapaltzeko dauzkagun eskubideez; lurra gurea den ala gu lurrarenak garen; munduko hiritarrak garen abiatzen garenean bakarrik...

Artistek zalantzan jartzen dute errealitate hori, eta ingurumen horretan dihardute elementu asaldatzaile gisara normalizatuta eta sozialki onartuta dagoen egoera anakroniko, bidegabe eta estankatu horren aurrean. Zalantzan jartzen dute, era berean, artista bezala gizarteak jarri ohi dien zeregina, lan metodoa eta bere obraren garrantzia eta esanahia.

Bertako jendeak ere gogoeta egiten du honen guztiaren gainean, eta bereizitako bi aldeetatik lan amankomun bat egin dute: zurezko meta bat, lurralde hau eta bertako bizilagunak zatitzen dituen mugan bertan; bi haranetako herrietako gazteek desafioa botatzen dute hainbat herri kiroletan (hauetako asko galduta). Festa batek elkartzen ditu mugaren bi aldeetako herritarrak; denboran galdutako erromeria bat -toki horretan egiten zena- berreskuratu da: musika, bertsoak eta festa; elementu horiek guztiek elkartu egiten ditu bi aldeetako biztanleak.

Egindako lanek lotura zuzena dute ingurunearekin: erabilitako materiala, bere degradazio naturala, obraren iragankortasuna, eraikitzeo erraztasuna, ingurugiroarekiko errespetua, erabateko integrazioa espazio naturalean.

QUÉ

Esta iniciativa realiza una reflexión sobre las relaciones sociales en la que se enmarcan la actividad artística, el activismo artístico con influencia social de cara a acciones de intervención en espacios públicos y naturales; la cesión de protagonismo de la ciudad en estrategias culturales de fuerte alcance iconográfico, estético y simbólico a iniciativas periféricas que son asumidas como propias o la descentralización de estas actuaciones artísticas; las referencias e interacciones artístico-estéticas en la construcción cultural del paisaje (Land Art, Arte y Territorio); la antropología y/o etnografía y su relación con el arte, la actuación multidisciplinar (danza, música, escultura, pintura, poesía, bertso, relato...) como método de trabajo e interrelación, la actividad artística como medio de expresión social, incluida la resistencia y la contestación; y las conexiones entre el arte y la cultura visual. La actuación efímera y nuestra relación con el tiempo y el espacio natural sobre el que se actúa, la fiesta como elemento aglutinador y comunicativo, la participación ciudadana como forma de intervención artística.

Los artistas participantes ante la pervivencia de una frontera real que divide de manera anacrónica una zona y unas gentes con el mismo pasado, lengua y forma de vida, en un entorno natural privilegiado, reflexionan sobre este hecho, sobre las fronteras en la sociedad actual, sobre divisiones arbitrarias de espacios naturales; sobre imposiciones de poderes lejanos a la gente del lugar; sobre separaciones de pueblos y familias por una línea trazada por alguien ajeno y desconocido; sobre el cumplimiento de normas absurdas, extrañas y ridículas; sobre que derechos nos asisten para hacer rayas en la naturaleza, apropiarnos de la tierra y evitar que el extraño la pueda pisar; si la tierra nos pertenece o pertenecemos nosotros a ella; si somos ciudadanos del mundo solo cuando partimos...

Los artistas cuestionan esta realidad y actúan en el medio como un elemento agitador de una situación anacrónica, injusta y estancada, pero normalizada y socialmente aceptada, cuestionando también el papel que como artistas la sociedad les viene asignando, el método de trabajo y el alcance y significado de su obra.

Las gentes del lugar reflexionan también sobre todo esto, y desde las dos partes separadas realizan un trabajo en común, una meta de madera realizada en la misma muga que divide este territorio y a los vecinos. Una fiesta une a los vecinos de las dos partes de la muga y abre el periodo expositivo.

Las obras realizadas tienen una relación directa con el medio, los materiales de su construcción, su degradación natural, el carácter no permanente de la obra, la sencillez de construcción, la mínima intervención medioambiental, la plena integración en el espacio natural.

Z E R G A T I K

Euskal Herrian ez delako egin ia interben- tzio iragankorreko ekimenik naturan; are gutxiago modu kolektibo, parte- hartzaile eta multidiziplinarrean; aldiz, Europan urte asko daramatzate egiten horrelako aktibitateak. Garrantzizkoa iruditzen zaigulako diziplina desberdinetako artistak biltzea ingurumen natural batean eta sortzea erakusgune berezi bat eta programazio erakargarri bat.

Sinesten dugulako kulturaren eta artearen deszentralizazioan, zalantzan jarritz hiriaren rol protagonista eta abangoardiakoa landa eta natura ingurumenaren aurrean; izan ere, azken honi paper folkloriko eta exotikoa ematen zaio, hiri ingurumenaren menpean jarritz eta hari zerbitzu puntualak emanaz; baina ez izaki propio eta independente bezala, sormen artistikoa eta bizitza sortzeko gauza baizik.

Pentsatzen dugulako partizipazio eta lan kolektibotik, naturarekiko hurbiltasun eta errespetutik, aniztasun eta desberdinen arteko baturatik egin dezakegula apustu fresko eta berritzaile bat.

Egoera anakroniko baten aurrean -gaur egun muga bat egotea gure ingurumenean- artistek elementu asaldatazaila gisara dihardute, zalantzan jarritz egoera zehatz hau eta mugaren egitekoa historian zehar eta oraingo mundu honetan, nola

ukitzen duten gizakia, ingurumena eta natura, ahaleginduz kulturaren eta sormen artistikoaren alorretik transformatzen errealtateak aldatzen uzten ez duena.

PORQUÉ

Porque en Euskalherria prácticamente no se han realizado iniciativas de intervención efímera en la naturaleza y mucho menos de carácter colectivo, participativo y multidisciplinar, cuando en Europa llevan décadas realizando actividades de este tipo, porque nos parece importante reunir a artistas de muy diferentes disciplinas en un entorno natural y crear un espacio expositivo singular y una programación atrayente.

Porque creemos en la descentralización de la cultura y el arte, cuestionando el rol protagonista y de vanguardia de la ciudad, frente al medio rural y natural, al cuál se le asigna un papel folklórico y exótico, estableciendo una subordinación y la prestación de servicios puntuales al medio urbano, pero no como ente propio, independiente, capaz de generar vida y creación artística.

Porque pensamos que desde la participación y el trabajo colectivo, desde la cercanía y el respeto a la naturaleza, desde la diversidad y la suma entre diferentes, podemos hacer una apuesta fresca e innovadora.

Porque ante una situación anacrónica, como es la pervivencia de una frontera actualmente en nuestro entorno, los artistas actúan como elemento agitador, cuestionando esta situación concreta y el papel de la frontera a lo largo de la historia y en el mundo actual, como afectan al hombre al entorno y a la naturaleza, intentando desde la cultura y la creación artística transformar aquello que la realidad se resiste a cambiar.

ZERTARAKO

Kultura eta artea landa ingurumen natural batera eramateko eta ingurumen horretatik jasotzeko; diziplina artistiko eta lan metodo desberdinetan lanean ari diren sortzaileek, kulturaren arlo desberdinetan lanean ari diren pertsonen eta bere historia propioaren lekukoak diren zonaldeko herritarrek, ia galduta dauden bizitza moduen protagonistek, garatu dezaten denen artean natura errespetatuko duen eta naturan bertan integratuta egongo den proiektu parte-har-tzaile eta jai girokoa, didaktikoa eta asaldatzailea, eta gauza izango dena -ikuspegi desberdinetatik eta lengoia berri batetik- gizarteari txertatzeko modu berri bat aintzat hartzeko sormen artistikoa, kultura eta natura, bisitariak eduki dezan beste pertzepzio bat, bere konplizitatea, parte hartzea eta protagonismoa bilatuz eztabaida honetan.

Gure herrialdean ez da ia inolako interbentzio artistikorik egin naturan eta are gutxiago modu kolektiboan. Hau aire freskozko ufada bat izan daiteke eta, era berean, eragingarri bat mota honetako ekimenak sor daitezten eta beste toki batzuetan urtetan lantzen ari diren diziplina artistikoak garatu ditzaun.

Balioz hornitzeko hiriguneetatik eta erabaki guneetatik urruti dagoen landa eremu bat, baina ingurumen pribilegiatu batean kokatua eta zaintzen dituen beste toki batzuetan dagoeneko galduta dauden bizipen eta ohiturak, errespetuz eta tokian tokiko ikuspegiarekin tratatzea merezi dutenak.

Forma artistiko berritzaile eta abangoardiakoak baliatuko dira aparteko edertasuna duen toki honetaz, beste leku batean lortu ezin diren baloreak eta ñabardurak indartuz eta nabarmenduz; baina, bide batez, protagonismo horrek ekarriko dio toki horri hiri ingurumenak errespetu eta kontsiderazio handiagoa edukitzea.

PARA QUÉ

Para llevar la cultura y el arte a un entorno rural y natural, y recibir de ese entorno, para que creadores que trabajan diferentes disciplinas artísticas y métodos de trabajo, personas que trabajan en la cultura desde diversos campos y ciudadanos de la zona testigos de su propia historia y protagonistas de formas de vida casi extinguidas desarrollen entre todos un proyecto respetuoso e integrado con la naturaleza, participativo y festivo, didáctico y agitador, que desde sus diferentes perspectivas y desde un lenguaje nuevo, sea capaz de imprimir en la sociedad una nueva forma de apreciar la creación artística, la cultura y la naturaleza, logrando en el visitante una percepción diferente, buscando su complicidad, participación y protagonismo del debate generado.

En nuestro país apenas se han realizado intervenciones artísticas en la naturaleza y menos proyectos de carácter colectivo, puede ser un soplo de aire fresco y aliciente para que iniciativas de este tipo surjan y desarrollemos formas y disciplinas artísticas que en otros lugares llevan muchos años trabajando.

Para poner en valor una zona rural alejada de los centros urbanos y de las tomas de decisiones, pero con un entorno privilegiado, que guarda todavía vivencias y costumbres, perdidas en otros lugares, que merecen ser tratadas con respeto y con la visión propia del lugar.

Formas artísticas novedosas y vanguardistas se aprovechan de una puesta en escena en un lugar de una belleza excepcional, potenciando y resaltando valores y matices, que en otro lugar no se darían, pero a la vez, este protagonismo, reportará un mayor respeto y consideración hacia el lugar por parte del entorno urbano.

NON

Ingurumen pribilegiatu batean, Azkaratek Bedaioa doan bidean, Zarateko lepoan, bi pago basok, mugak berak eta eraikin batek osatuko dituztelarik erakusgunea eta eszenatoki naturala, non artistek eta bertako bizilagunek jardungo duten eta arituko diren, zona hau bihurtzeko topaleku, gozamen eta sorpresa bertako jendearentzat eta bisitarientzat. Beste ekitaldiak herrietan bertan edo inguruko tokietan gauzatuko dira.

Web gunean, egindako ekitaldien argitalpena, informazioa eta programazioa; artisten eta proiektuaren laguntzaileen kontu eta profiletan. Argitaratutako foileto eta argitalpenetan. Tolosaldeko eta Araitz haraneko herrietan, Azken mugaren aurkez- penetan eta proiektuaren erakusketetan.

Nafarroa aldetik heltzeko NA-1300 Iruña-Tolosa errepidea hartu behar da, eta Atallun -17 km Tolosara eta 45 Iruñera-Azkaratera, 4 km egiteko NA-7511 errepidetik. Behin iritsita herrira, km bat egin behar da oinez, seinaleei kasu eginez, Azken mugara doan pistatik barrena. Bidea erraza da eta baldintza onetan dago hurrekin edo minusbalioren bat duen norbaitekin iristeko.

Hauexek dira tokia lokalizatzeko koordenatuak: 43.047613,-2.020374.

DÓNDE

En un entorno privilegiado, en la ruta que nos lleva de Azkarate a Bedaio, en el Collado de Zarate, un camino, dos zonas boscosas de hayas, la propia muga y una única edificación albergan el espacio expositivo y el escenario natural donde artistas y vecinos del lugar intervienen y actúan, convirtiendo esta zona en lugar de encuentro, gozo y sorpresa para gentes del lugar y visitantes, otros actos se han celebrado en los propios pueblos o lugares cercanos.

En la web www.azkenmuga.eus, información, programación y publicación de los actos realizados, en Facebook en Azken Muga Zarate, en las cuentas y los perfiles de los artistas y colaboradores del proyecto. En los folletos y publicaciones editados.

Para acceder por la parte navarra, es necesario coger la carretera NA-1300 de Pamplona-Tolosa desviarse en el cruce hacia Azkarate en la localidad de Atallu, situada a 17 km. De Tolosa y 45 de Pamplona, continuar unos 4 km. por la carretera NA-7511, una vez llegados al pueblo continuar a pie un kilómetro, siguiendo las señalizaciones, la pista de acceso a Azken muga es ligera sin apenas dificultad, está en buenas condiciones permitiendo su acceso a niños y personas con algún tipo de minusvalía.

Para acceder desde Bedaio es necesario tomar la autovía A-1 Donosti – Gazteiz y desviarse en la salida de Alegia, Km 431 a unos 32 km. de Donosti, tomando dirección a Amezketa por la carretera GI-2133 unos 4 km. y desviarse en el pueblo de Ugarte dirección Bedaio por la carretera unos 7 km., es interesante visitar Bedaio, cuenta con un bar donde se puede comer o hacer un pequeño hamaiketako, pero el camino hacia Azken muga se desvía un kilómetro antes, debidamente señalizado, dirección al baserri Gurbilhaundi, el caserío más grande de Gipuzkoa, desde allí es necesario continuar a pie algo menos de dos kilómetros, con una fuerte subida no estando el camino en buenas condiciones y siendo necesario salvar dos langas existentes.

“Aundiya”

AULKI ERRALDOIA

Guillermo Olmo eskulturagileak “Aundiya” egin du, neurri erraldoiko aulkia, zortzi metroko alturarekin, herriz herri ibili dena Azken Muga proiektua aurkezten, ekitaldiak hasi baino bi hilabete lehenago, gure herrietako plazak okupatzen joan dena, zalaparta eta ustekabea sortuz bizilagunen artean eta proiektuaren aurkezpenetan parte hartzera gonbidatuz. Ibilbide honi esker Azken Mugak ezagutza handia lortu du Aralarren bi aldeetako bizilagunen artean eta, aldi berean, “Aundiya” proiektuaren ikonoa bihurtzen joan da, bere irudi ezagunena.

Zortzi metroko altuera eta garraio arazo dezente izan arren, txikiek eta handiek bere presentziaz gozatu ahal izan dute bere herrietan, ondoren Zaraten ekitaldi guztien lekuko izateko. Bertsolariek, musikariek eta dantzariak eserlekuaren lau metroei aurre egin diete, eragin handia eta une gogoangarria lortuz ikusle goan eta oihartzun mediatiko garrantzitsua. Horrelako ekitaldiak, gizarte guztira iristen direnak, natur eta baserri gune batean egin ahal izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, kultura eta artea ingurune horretako beste elementu bat izatea lortuz, hirigunearekin partekatuz orain arteko eskusibotasuna alor horietan.

SILLA GIGANTE

El escultor Guillermo Olmo realizó “Aundiya”, una silla de enormes proporciones, con ocho m. de altura, que ha recorrido pueblo a pueblo presentando el proyecto de Azken Muga, dos meses antes de comenzar las actividades, ha ido ocupando las plazas de nuestros pueblos, causando revuelo y sorpresa entre los vecinos e invitándoles a las presentaciones del proyecto, esta andadura ha permitido que Azken Muga gozase de un gran conocimiento entre los vecinos de las dos partes de Aralar, y a su vez “Aundiya” ha ido convirtiéndose en un icono del proyecto y su imagen más reconocida.

Ocho metros de altura y bastantes problemas en el transporte no han impedido que pequeños y mayores, pudieran disfrutar en sus pueblos de su presencia, para más tarde ser testigo de todas las actividades en Zarate. Bertsolaris, músicos y dantzaris han desafiado los cuatro metros de altura de su asiento, logrando un gran impacto y un momento memorable, para el público presente y un eco mediático importante, creemos que es importante que hechos como estos, que trascienden y llegan a toda la sociedad, puedan realizarse en un medio rural y natural, haciendo que la cultura y el arte sea un elemento más de ese entorno, y pase a compartir con los entornos urbanos, su hasta ahora exclusividad en estas áreas.

Rexu Balerdi

Azken Mugaren barruan, Garoa saria sortu dugu aurten, aurrerantzean jarraitzeko asmotan, bere bizitza eta esfortzuen zati handia gure kulturari eta sustraiei eskaini dieten pertsonen giza eta lan ibilbidea sarituz. Horrela gure ohitura, hizkuntza, sormen artea eta kultura mantentzea lortuz, mundu aldakor eta globalizatu honetan, bertan integratuz eta gure esfortzua jarritz dibertsitatetik eta aurrera begira ikuspuntu sortzaile eta berritzailetik, gizarte ezegonkor eta uniformatzaile honetan presente egoten jarraitzea posible eginez.

*GAROA SARIA 2016

Planetan gizakia izan baino milioika urte lehenago, garoak lurrazalaren zati handia estaltzen zuen, klima aldaketa, izurrite eta animalia guztiei aurre eginez eta haietara egokituz. Bere xumetasunetik gure herriaren ondoan izan da historian zehar gaur egun arte, gure paisaiaren parte izanez, beharrezkoa ez irudituz eta ustekabean pasatuz, urtero behin eta berriz moztuz. Baina garoa berriz sortuko da, horregatik bere sustraiek lurrari gogor lotuta jarraitzen dute.

Lehen edizio honetan Bedaioko Rexu Balerdi aukeratu dugu, pertsona oso ezaguna Zarate inguruko herrietan. Oso dantzari ona da, txikitatik inguruko erromeria guztietan aritu izan dena, dantzarako abilezia izugarria erakutsiz. Bedaioko ingurutxo dantzaren berreskurapenean erabakigarria izan zen bere ekimena. Azken Muga proiektuaren hasieran aulki erraldoiaren gainera igo eta dantzan hasteko zalantzarik ez zuen izan. Gure proiektuaren irudi ezagunena bilakatu da. Gainera Rexu ar- tzaina da, Aralarri erabat lotutako lanbide zaharra. Pertsona xume bat da aurtengo GAROA saria, proiektuaren filosofiarekin bat datorrena. Joan zen irailaren 24ean, Azken Mugaren azken ekitaldian, Olatz Peon Tolosako alkateak Garoa 2016 saria eman zion Rexu Balerdiri, Aralarreko bi aldeetatik dantzan eta gure kulturaren gindako lana errekonozituz.

*PREMIO GAROA 2016

Instituimos este año el premio “Garoa” dentro de Azken muga, con ánimo de continuidad para años posteriores, premiando la trayectoria profesional y humana de aquellas personas que han dedicado gran parte de su vida y esfuerzos a nuestra cultura, a nuestras raíces, logrando con esta dedicación el mantenimiento de nuestras costumbres, lengua, artes creativas y cultura, dentro de este mundo cambiante y globalizado, integrándonos en él y aportando nuestro esfuerzo desde la diversidad y con una perspectiva de futuro creativa y renovadora, que nos permita continuar presentes en esta sociedad inestable y uniformadora.

Millones años antes de la presencia del hombre en el planeta, “garoa” cubría gran parte de la superficie terrestre, resistiendo y adaptándose a todos los cambios climáticos, plagas y animales cuya vida dependía de este alimento, y desde su modestia ha acompañado a nuestro pueblo a lo largo de la historia hasta nuestros días, formando parte de nuestro paisaje, pudiendo parecer innecesario y pasar desapercibido, cortándolo una y otra vez, todos los años, pero “garoa” saldrá otra vez, por que sus raíces continúan fuertemente ancladas a la tierra.

En esta primera edición la persona elegida ha sido Rexu Balerdi, de Bedaio, muy conocido en los pueblos en torno a Aralar por ser un buen dantzari, asistiendo desde niño a todas las romerías de los alrededores y mostrando una gran habilidad para las danzas vascas. Una de las personas clave en la recuperación del arraigado baile del Ingurutxo de Bedaio. Fue la persona que no tuvo ninguna duda para subir a la silla gigante que simboliza el proyecto Azken Muga en su presentación y bailar al son del txistu. Se ha convertido en la imagen más conocida de nuestro proyecto. Además Rexu es pastor, profesión íntimamente relacionada con Aralar. El premio GAROA de este año es una persona sencilla, en total concordancia con la filosofía del proyecto.

El pasado 24 de septiembre en el acto final de Azken muga, en la edición del presente año, la alcaldesa de Tolosa Olatz Peon hizo entrega de “Garoa 2016” a Rexu Balerdi, reconociéndole su labor con la danza y nuestra cultura desde las dos partes de Aralar.

LANAK ETA ARTISTAK

Zarate, artea naturan

Zaraten, baso gune batean, edertasunak gainezka egiten duen tokian, pago handiek islatzen duten magia eta dotoreziaz, eskultura erakusketa kolektibo iragankorra burutu dugu, sormen artistikoa eta inguru naturala integratuz, proposamen berritzailea gure herrian, ez ordea Europako hainbat tokitan, aspaldidanik artea eta natura nahasteko ohitura baitaukat. Zortzi artista, Art-ola kolektiboa eta bizilagunak izan dira partaide aktibitate honetan, basoaren natur xarmari interes berriak erantsiz, giza irudimenaren fruituak, aulki erraldoia, armiarma izugarria, txalaparta soinuak edo airean flotatzen duten harriak, bidaiaria harriz, ikuspegi desberdina eskainiz.

Erakusketak izan dituen bisitari kopuru zehatzik ez dago, uztaila, abuztua, iraila, urria eta azaroan zehar irekita egon denez, baina programatutako ekitaldietan izandako kopuruetatik abiatuz, eta Zaratetxean egindako erakusketetan zenbatutako bisitekin, gutxi-gorabeherako estimazio bat egitera ausartuko ginateke. 6.000 bisitari inguru izan direla esango genuke.

Jendea etortzea oso positiboki baloratzen dugu, baita bisita gidatuetan beste erakunde eta kolektiborekin egindako elkarlana ere.

En Zarate, en una zona boscosa, lugar de una belleza desbordante, con la magia y majestuosidad que proyectan las grandes hayas, realizamos un exposición colectiva de escultura de carácter efímera, integrando creación artística y medio natural, propuesta novedosa en nuestro país, no así en gran parte de Europa, con gran tradición de mezclar arte y naturaleza desde hace tiempo, ocho artistas, el colectivo Art-ola y vecinos participan en esta actividad, añadiendo al encanto natural del bosque nuevos atractivos, producto de la imaginación humana, una silla gigante, una gran tela de araña, sonidos de txalaparta o piedras que flotan en el aire, sorprenden al viajero ofreciéndole una visión diferente.

No hay datos fiables de las visitas que ha podido recibir la exposición, al permanecer abierto durante los meses de julio, agosto, septiembre, octubre y noviembre, pero nos atreveríamos a realizar una estimación aproximada, partiendo de la asistencia a los actos programados y las visitas contabilizadas en las exposiciones del edificio de Zaratetxea, esta estimación pudiera estar entorno a las 6.000 visitas. Valorando de una manera muy positiva la afluencia, así como la colaboración con otras entidades y colectivos en las visitas guiadas.

RAMÓN CABESTANY

Bere lanek eszenak, mementoak, gelditasun eta lasaitasun uneak islatzen dituzte, sentsazio bizien aurreko edo ondorengo egoerak agian, ekaitzaren aurreko tentsioa edo ondorengo barealdia bezala. Figuraz betetako obra garatu du, bizi izandako “naturak”, asmatutako paisaiak eta irudizko memoria arkeologiko batetik berreskuratutako objektuak. Bere lanetan xamurtasunez, baina baita isekaz eta ironiaz ere, planteatzen ditu “naturen” handitasunaren eta jabetzen eta besarkatzen saiatzen den indibiduoaren bakardadea eta hutsalkeriaren arteko kontraesanak.

Sus obras representan escenas, momentos, instantes de quietud y sosiego, quizás situaciones previas o posteriores a sensaciones intensas, como la tensión previa a la tormenta o la posterior calma. Ha desarrollado una obra poblada de figuras, de “naturalezas” habitadas, de paisajes inventados y objetos rescatados de una imaginaria memoria arqueológica. En sus trabajos plantea, con ternura pero también con sarcasmo e ironía, las contradicciones entre la magnitud de “las naturalezas” y la soledad e insignificancia del individuo intentando poseerlas y abarcarlas.

Muga

Muga lerro hauskor, ezegonkor, eta arriskua da. Klima, landaredi edo paisaiak era harmoniko eta naturalean banatu ditzakeen edo gupidarik eta arrazoirik gabe, pertenez- tzia, afektu edo eremuak artifizioak eta giza berekoikeriak banandu ditzakeen esaera anitzeko marra da Muga. Bere hankapean dagoen guztiaz ezer jakin gabe doa oinez gizaki axolagabe eta inozentea marra hauskor ezegonkor eta arriskutsuan zehar.

Una línea frágil, inestable y peligrosa.

Frontera. Polisémico límite que puede separar climas, vegetaciones o paisajes de forma natural y armónica o que en el artificio y la codicia humana separa pertenencias, afectos y territorios sin piedad ni razón. Un hombre inocente y despreocupado camina tranquilo por la línea frágil, inestable y peligrosa ajeno al desconocido destino sin saber todo lo que se mueve bajo sus pies.

G U I L L E R M O

O L M O

Diziplina anitzeko artista, Bizkaitik datorrena eta duela hamar urte baino gehiago Amezketa bizi dena. Neurri handiko eskultura du gustuko eta espazio publikoetan parte hartzeko zaletasuna duena, biziak, jendea dabilena, eta naturan, arteari eskainitako leku hil eta itxietatik ihes eginez. Ikuslea bere obrarekin ustekabean topatzea nahi du, espero ez duen leku batean. Aralarren hainbat interbentzio iragankor eta iraunkor egin ditu.

Artista multidisciplinar, procedente de Bizkaia y afincado en Amezketa hace más de una década, con predilección por la escultura de gran tamaño y amigo de intervenir en espacios públicos, transitados, vivos y en la naturaleza, huyendo de los lugares muertos y estancos destinados al arte, pretende que el espectador se encuentre con la obra de manera sorpresiva, sea interpelado por esta en un lugar no esperado, ha realizado diversas intervenciones efímeras y permanentes.

Lamien dorrea

Mugak jartzera jende arrotzak iritsi eta zein alde bateko eta zein besteko erabaki baino lehen, leku hauetan bizi zirenek espazio hau animalia eta landareekin partekatzen zuten. Bizitza bera zen muga bakarra. Lurra gurea izan baino askoz lehenago, gu berea ginen. Leku urruti batetik lur hauetara jaingo bat ekarri baino lehen, biztanleek bere sineskera propioak zituzten, lamia eta botere handietako animaliekin elkar bizituz, Mariren kobazuloaren ondoan. Beraientzat, Lamien dorrea.

Mucho antes de que llegaran gentes extrañas a colocar fronteras y decidir quienes eran de un lado y quienes del otro, los que habitaban estos lugares compartían este espacio con animales y plantas, sin otro límite que la vida misma, mucho antes de que nos perteneciera la tierra, nosotros pertenecíamos a ella, mucho antes de que traerían a estas tierras un dios de un lugar lejano, sus habitantes tenían sus propias creencias, conviviendo con lamias y animales con grandes poderes, cerca de la cueva de Mari, para todos ellos, Lamien dorrea.

J A B I E R

OLAIZOLA

Musikaria eta diziplina arteko artista. Errenteria, 1962. Naturari oso lotua, bertan modu armoniatsuan elkartzen ditu musika eta edozein ekimen. Natura erabat errespetatuz, bere interbentzioak iragankorrak izaten dira eta zuzenean mediotik hartutako materialekin eginak.

Duela sei urte burutu zuen Urbasan gure herrian naturan elkarlanean eta modu iragankorrean egin den ekimen bakarra.

Músico y artista multidisciplinar, Errenteria 1962, muy ligado a la naturaleza donde une de manera armónica música y cualquier tipo de iniciativa en el medio natural, con un respeto exquisito hacia la naturaleza. Sus intervenciones suelen ser efímeras y elaboradas con materiales cogidos directamente del medio.

Ha realizado en la Sierra de Urbasa hace seis años quizás la única iniciativa que de manera colectiva y de carácter efímera en la naturaleza en nuestro país.

Aizeparta

Pago baso baten erdian, zuhaitzetatik zintzilik dauden enbor formazioa agertzen da. Bere antolaketa homogeenok harridura sortzen du mugaren beste aldera baimenik gabe inor ez pasatzeko ardura- tzen diren gizonen artean. Beraiek ematen dituzte beharrezko dokumentazioak horretarako. Itxuraz arriskurik ez duen gailu baten aurrean ez dago zeresanik. Zaindarien tramankulu bitxi hartatik alde egiten dutenean, haur bat inguratu eta txalaparta soinua egiten du egur zati batekin. Bere soinuak basoan zabaltzen dira, muga zeharkatuz eta beste aldeko jende eta abereengana iritsiz. Hauek bai, ulertzen dute txalpartaren soinua, baimenik gabe.

En medio de un bosque de hayas, aparece una formación de troncos colgados verticalmente de los árboles, su disposición homogénea causa extrañeza a los hombres encargados de que nada pase a la otra parte de la muga sin su permiso y con la documentación en regla, que previamente ellos otorgan, sin embargo no hay nada que objetar ante un dispositivo en apariencia no peligroso, cuando los guardas se alejan de tan raro artilugio, un niño se acerca y con un trozo de madera hace sonar la txalaparta, sus sonidos se extienden por el bosque, atravesando la muga y llegando a las gentes y animales del otro lado, que sí entienden el sonido de la txalaparta, sin permiso.

EGOITZ IÑURRITA

Artisten gazte gipuzkoarra (Amezketak, 1982). Aurreko bi eskulturagile belaunaldiak garatutako kontzeptu, metodo irrikak bere garaiko ikuspuntutik lantzen ditu. Materia, espazioa eta bolumenaren garrantzia eta errespetua bezalako alderdiak bere egiten ditu. Lur honekin lotura handia du, baina gaur egungo eta gertuko hizkuntzarekin, obraren seriotasuna, formaren garrantzia eta transzendentziaren zentzua galdu gabe.

Bere sena eta barne ahotsa jarraituz egiten ditu bere lanak. Artistak berak bere eskuekin bere obra egiteari garrantzi handia ematen dio, materialak sentituz, bere mugak ezagutuz eta elkarriketa horretatik obra sortuz.

Joven artista gipuzkoano (Amezketak, 1982) que elabora desde la perspectiva propia de su época los conceptos, métodos y anhelos desarrollados por las dos generaciones de escultores anteriores, haciendo suyos ciertos aspectos como la importancia y el respeto a la materia, al espacio y al volumen, con una gran vinculación con esta tierra, pero con un lenguaje más actual y cercano, sin perder el sentido de la seriedad de la obra, su gravedad formal y sentido de lo trascendente.

Crea sus obras siguiendo su instinto y su voz interior. Da mucha importancia a que el propio artista sea el que realice su obra con sus propias manos, sintiendo los materiales, conociendo sus límites y creando la obra a partir de ese dialogo.

Horma

Azken muga proiektua egiten den lekuan mugak mozten duen bidea dago. Zatiketa hori paper lerroa izan zen lehen, urrutiko politikengatik lekuz aldatu zena, baina zuzenean inguruko bizilagunengan eragin zuzena zuena. Denbora aurrera doa eta ohiturak aldatzen ari dira. Mugek bere garrantzia galtzen dute gure inguruan, ofizialtasuna galtzen dute, baina hor jarrai- tzen dute. Harresi ikusezin batekin konpara daitekeen muga. Nahiz eta espazioa fisikoki ez banandu, beste modu batera egiten duena. Bizilagunen arteko komunikazioari jarritako harresia da, kulturari jarritakoa, adiskidetasunari, gizakiak sortutako langa.

Artista, inguruan jaioa, basoan esku har-tzen saiatzen da leiho bat irekiz, mugari buruzko ikuspegia aldatzeko. Edo gutxienez berari buruzko hausnarketa egiten du. Harresia irekiko duen leihoa eta beste aldean egon zena gogoraziko diena bizilagunei. Ikusteko, komunikatzeko eta elkar ulertzeko leihoa.

En el lugar donde se realiza el proyecto “Azken muga” existe un camino que es cortado por la frontera. Esta división fue antes una línea en un papel, que cambió de ubicación por políticas lejanas, pero que afectaban directamente a los vecinos del lugar, con el paso del tiempo y el cambio de costumbres, las fronteras pierden su importancia en nuestro entorno inmediato, ésta pierde su rango oficial, pero la frontera continua. Una frontera comparable a un muro invisible que aunque no separe el espacio físicamente lo hace de otras maneras. Es un muro a la comunicación entre vecinos, un muro a su cultura, un muro para la amistad, una barrera creada por el ser humano.

El artista, natural de la zona, trata de intervenir en el bosque abriendo una ventana, para cambiar la visión sobre el límite y la frontera o al menos para hacer reflexionar sobre ella. Una ventana que abra el muro y que haga recordar a los vecinos lo que hubo al otro lado. Una ventana para ver, comunicarse, y para entenderse.

ALEX MORLOTEZ

Alex Morlotez, diziplina anitzeko arte langilea, artearen adiera guztietan interesatua, naturaz eta gizarte gaiez sensibiltzatua. Bere bizitzako garai batzuk Tolosaldean pasatu ditu, Azken Muga proiektuaren bultzatzaileetakoa izanik.

Alex Morlotez trabajador artístico multidisciplinar, interesado por el arte en cualquiera de sus acepciones , con gran sensibilidad hacia la naturaleza y la temática social, ha pasado periodos de su vida en Tolosaldea, siendo uno de los impulsores del proyecto “ Azken Muga”.

No existe

Ez dago horren frogarik, arrotz batzuk etorri ziren, besterenak diren gauza batzuk jarri zituzten, bitxiak ziren, ez genituen ulertzen, agian modernitatea zen, gauza arraro horien ondoan pasatzen ginen eta ez genituen ikusten, agian ametsa izango zen, zertarako alferrik lan egin, guk basoa besterik ez genuen ikusten, mendia, bizilaguna, ezkontzak, festak, lana, animaliak, euria, etorri ziren atzerritar horiekin zer sentsazio genuen, hori gure hizkuntza hitz egiten zutela, alferrik lan egiten zutela, zein arraro diren.

Beti gezurra izan da, gurekin ez dute sekula kontatu, hemen bizi garenok, ez dakigunok zein bizi den alde batean eta zein bestean, hitz horiek ez daudelako gure ametsetan.

No hay prueba de ello, vinieron unos extraños, pusieron unas cosas ajenas para nosotros, eran raras no las entendíamos, tal vez era la modernidad, nosotros pasábamos al lado de esas cosas extrañas y no las veíamos, tal vez fuera un sueño, para que trabajar en vano, nosotros solo veíamos el bosque, la montaña, el vecino, los casamientos, las fiestas, el trabajo, los animales, la lluvia, que sensación teníamos con esos extranjeros que vinieron y eso que hablaban nuestra lengua, que trabajo en vano, que raros que son.

Siempre ha sido mentira, nunca han contado con nosotros que vivimos aquí, que no sabemos quien es de un lado y quien del otro pues no existen esos términos en nuestro sueños.

A R A N T Z A O R B E G O Z O

Arlo anitzeko artista, Tolosan jaioa eta Atalluko bizilaguna, bere bizitza Aralarren bi aldeetan banatuz. Ospe handiko pintore eta artista, ibilbide profesional luzekoa, mundu osoan erakusketa ugari egindakoa. Giza faktorea bere lanen parte bat da, bere obra eta proiektuak erabat markatzen duten protagonismoa eskuratuz.

Arantza Orbegozo artista multidisciplinar, nacida en Tolosa y vecina de Atallu, repartiendo su vida a los dos lados de Aralar, pintora y artista multidisciplinar de reconocido prestigio y una larga trayectoria profesional, con gran cantidad de exposiciones por todo el mundo. El factor humano forma parte de sus obras, adquiriendo un protagonismo que marcan de manera decisiva sus obras y proyectos.

Sarea

Armiarma-sare soil eta ahul bat muga gisa, alde hau eta bestea elkartzen edo bana- tzen gaituen sare gisa, hauskor eta sendo, janaria ematen digu... gurutzatzen dut edo ez. Oraingoan armiarma-sarea neurritz gora ondo egina dago, erraldoi eginez, material organikoekin... Eta armiarma? Eguzkiloreak, lur honetarako talismana, babestuko gaitu.

Una simple y débil telaraña como muga, como red que nos une y/o separa este lado y al otro, frágil y robusta, nos da alimento... la cruzo o no. Esta vez la telaraña esta bien sobredimensionada haciéndola gigante, con materiales orgánicos... ¿y la araña? El eguzkilore, talismán para esta tierra nos protegerá.

G E R M Á N D E L O S R Í O S

German de los Rios, Bilbo 1974, autodidakta, bere lana bere ikerketak eta ibilbide pertsonalak markatzen du, bere lanak ikusten dituen publikoa inguratzen eta harritzen saiaturaz. Bere eskulturak naturarekin eta hiriarekin bat egiten du. Ez du ikuslea interesik gabe uzten. Ikus sen- tsazio berriak sumatzera gonbidatzen du, bere gustu estetiko edo artistikoak alde batera utziz. Arte gaztea, forma berriak mundu aldakor batentzat.

German de los Ríos, Bilbao 1974, autodidacta, su obra está marcada por la propia investigación y su trayectoria personal, intentando siempre envolver y sorprender al público que presencia sus trabajos, con una escultura que se fusiona tanto

con la naturaleza como con lo urbano, la cual no deja indiferente al espectador, invitándole a percibir nuevas sensaciones visuales. al margen de sus gustos estéticos o artísticos, arte joven, nuevas formas para un mundo cambiante.

Harriloreak

Aralarren muga batek lurraldea zatitzen du, baina naturari berdin zaizkio gizakiek sortutako lerro zentzugabeak, kode oso desberdinez gidatzen da. Mugaren bi aldeetan eguzkiloreak loratzen dira eta orain Zaraten harriloreak, haiek bezala klima gogorrean eta aurkako baldintzetan, lurretik ordenarik gabe sortuz, ausaz, bisitaria ustekabean harrapatuz.

Lurretik modu organikoan altxatzen diren harri multzoak, bizitza duten landare elementuak gogoraraziz, harri arinak, airetik zintzilik, grabitateari aurre eginez eta kolore deigarriak erakutsiz, loratze une hoberenean dauden zuhaitzak bezala, ordena natural desitxuratua erakutsiz, desberdina eta kontraesankorra.

En Aralar una muga divide el territorio, pero la naturaleza indiferente a líneas absurdas creadas por humanos, se rige por otros códigos bien distintos, a ambos lados de la frontera florecen eguzkilores, y ahora, en Zarate, “harriloreak”, como aquellos en clima duro y condiciones adversas, surgiendo de la tierra sin orden establecido, de manera aleatoria, sorprendiendo a su paso al visitante.

Conjuntos de piedra que se elevan del suelo de forma orgánica, recordándonos elementos vegetales con vida, piedras ligeras, colgadas del aire, desafiando la gravedad y luciendo llamativos colores, como árboles en su mejor momento de floración, mostrándonos un orden natural distorsionado, diferente y contradictorio.

A L B E R T O L E T A M E N D I

Alberto Letamendi Ordizia jaio zen eta Tolosan egiten du lan. Pintura eta eskulturaren artean banatzen du bere sorkuntza artistikoa. Erakusketa ibilbide garrantzi- tsua egin du hemen eta kanpoan, Japonian egindakoa nabarmenduz. Naturak eta gizakiak paper garrantzitsua dauka bere lanean, naturako materialak erabiliz gehienbat, bai pinturan pigmentu naturalak erabiliz, bai eskulturan alambrea, burdin hautsa eta egurra manipulatur. Baina natura aldi berean hausnarketarako eta inspiratzeko motiboa da bere lana eraiki- tzeko. Gizakia, giza harremanak eta honek ingurune naturalarekin duen harremana da beste inspirazio iturria.

Duela bi urte edo Guillermo Olmo eskulturagilea etorri zen aurkeztera buruan zuen ideia.

Eta nola inplikatu da herriko jendea proiektuan?

Saiatu gara, baina agian ez dugu lortu. Artista taldeak egin du aurrera, Gipuzkoako eta Nafarroako pertsona batzuen laguntzarekin. Egitaraua beraiek prestatu dute. Gure laguntza azpiegitura aldetik izan da: taberna jarri, kartelak erantsi...

Eta nola atera da?

Hasieran uste baino hobeto. Gauzak lotu gabe zeudela ematen zuen, baina azkenean oso ondo atera da dena. Jende dezente mugitu da Zarate aldera eta gauza polita izan da herriarentzat.

Zein da proiektu honen ekarpen nagusia Azkaraterentzat eta bailararentzat?

Nik, alkate bezala, hiru gauza ikusten ditut. Alde batetik, gaur egun mugek ez dute zentzu handirik eta proiektu honek hori agerian jarri du. Bestalde, azken berrogei urtetan edo, ni jaio nintzenetik, Zaratek beste aldera dauden Gipuzkoa aldeko herriekin harreman handirik ez dugu izan. Agian Lizartzarekin gehiago. Harreman hori zerbait hobetzeko balio izan du Azken Mugak. Azkenik, aberastasuna izan da Azkaraterentzat gauza berriak egitea. Ikuspegi artistikotik ez dut baloraziorik egingo, gustatu edo ez oso pertsonala delako.

Nola erantzun du bailarako jendeak?

Hasiera hoztasun handiarekin hartu zuten, ez zuten sinesten edo egin zitekeenik. Gauza berriak, sekula egin gabeak, ziren eta. Horregatik, ideia polita izan arren, hasieran bailarako jende gutxi ibili da ekitaldietan. Baina azkenaldian, abuztutik aurrera, jende gehiago igo da ikustera zer zegoen. Aulki erraldoiak inpaktua sortu zuen, baina jendeak ez zuen Zaratekoarekin lotu. Hor gelditu zen. Hasieran jendeak ez zuen ezer esaten. Gero nor zegoen horren atzetik galdetzen zuen. Ikusitakoan ez zegoela ezer arrarorik, artista talde bat besterik ez, konfiantza hartu eta ondo erantzun du. Proiektu honi esker batzuk Zaratera joan dira aspaldiko partez. Batzuentzat ezagutu gabeko tokia zen. Nire adinekoek Zarate bailarako zaborteziarekin lotzen genuen, hori izan delako urtetan. Helduagoentzat ez zen hori bakarrik. Alde horretatik bere aurpegia garbitzeko balio izan du.

Aurrera begira nola ikusten duzu proiektua?

Herri txikia gara eta azpiegitura gutxi ditugu. Planteamendu aldetik beldurra ematen dit masifikatzeak. Ez dakit talde bultzatzaileak zer asmo duen. Udaberrian elkartuko gara berriro. Izen bat hartu du proiektuak, toki zoragarria da, espero baino bisitari gehiago izan dira eta inguruko herriak harremanetan jartzeko tresna polita da.

“El proyecto ha servido para mejorar la relación entre ambos lados de Zarate”

¿Cómo tuvisteis noticia de este proyecto?

Hace dos años vino el escultor Guillermo Olmo a presentarnos la idea que tenía.

¿Y cómo se ha implicado la gente del pueblo en el proyecto?

Lo hemos intentado, pero tal vez no lo hayamos conseguido. El grupo de artistas ha tirado de él, junto con algunas personas de Gipuzkoa y Nafarroa. Ellos han preparado el programa. Nuestra colaboración se ha centrado en las infraestructuras: poner un bar, pegar carteles...

¿Y cómo ha salido?

Mejor de lo que pensábamos al principio. Parecía que estaba todo en el aire, pero al final todo ha salido muy bien. Ha ido mucha gente a Zarate y ha sido una cosa bonita para el pueblo.

¿Cuál ha sido la principal aportación de este proyecto a Azcarate y el valle?

Como alcalde veo tres buenas aportaciones. Por un lado, hoy en día las fronteras no tienen mucho sentido y en ese sentido este proyecto lo ha dejado a la vista. Por otra parte, en los últimos cuarenta años, desde que nací, no hemos tenido mucha relación con los pueblos de Gipuzkoa que están al otro lado de Zarate. Tal vez hayamos tenido más relación con Lizartza. Azken Muga ha servido para mejorar esa relación. Por último, el hecho de que haya actividades nuevas es enriquecedor para Azcarate. No entro a valorar el punto de vista artístico, ya que es muy personal.

¿Cómo ha respondido la gente?

Al principio se acogió la idea con mucha frialdad, no creía que pudiera llevarse a cabo porque eran actividades nuevas, que nunca se habían organizado. Por ello, a pesar de ser una bonita idea, al principio la gente del valle no tomó apenas parte en dichas actividades. Pero hacia el final, desde agosto en adelante, ha subido más gente a ver lo que había. La silla gigante creó un impacto, pero no se relacionó con el proyecto de Zarate. Quedó ahí. Al principio la gente no decía nada. Luego preguntaba quién estaba detrás del proyecto. Cuando vieron que no había nada raro, que no era más que un grupo de artistas, se confiaron y han respondido bien. Gracias a esta idea mucha gente ha ido a Zarate, cosa que no hacía desde hace mucho tiempo. Para otros era un lugar desconocido. Los de mi edad relacionábamos Zarate con el vertedero del valle, lo que ha sido durante años. Para los más mayores no era sólo eso. Ha servido para lavar la cara a dicho lugar.

¿Cómo ves el futuro del proyecto?

Somos un pueblo pequeño y tenemos pocas infraestructuras. Me da un poco de miedo que se masifique. No sé que intención tiene el grupo promotor. Nos reuniremos de nuevo en primavera. El proyecto ha adquirido un prestigio, el paraje es maravilloso, ha habido más visitantes de los esperados y ha sido útil para poner en contacto a los pueblos de ambos lados.

“Los de mi edad relacionábamos Zarate con el vertedero del valle, lo que ha sido durante años. Para los más mayores no era sólo eso. Ha servido para lavar la cara a dicho lugar”

Guillermo Olmo

“Aundiya”ren autorea

Guillermo Olmok Aralarren magalean lan egiten du, Artola-Saletxen, Amezketan mantentzen den antzinako baserrietako bat, naturan bete betean eta bizilagun gertukoena Txindoki duela. Artista multidiziplinarra, giro bereziaz eta naturaz blaitua dagoen obra egiten du. Parte hartze desberdinak izan ditu Aralarren, hara nola “Atari”n -Amezketan dagoen San Martingo baso errean- edo “Harrespila”n, Larraitzen –Abaltzisketa-. Azken Muga proiektuan hasiera hasieratik parte hartzen du eta “Aundiya”, Azken Muga aurkeztuaz Aralarren bi aldeetako herrietan zehar ibili den eserleku erraldoiaren egilea da.

Proektuaren alde zurekin egon zara; zerk bul- tzatu zintuen mota honetako ekintza hau burutzera eta zer lortu nahi zenuten?

Aralarretik gertu sentitzen garen artista talde bateko ekimen bat burutu nahi genuen. Aurrez, gauzatu izan da erakusketa moduko zerbait, baina beti ere formatu konbentzional batean, erakuste esparru itxi batean. Baina Aralarrek taldean eta ingurumen naturalean lan egiteko aukera ematen du, eskaintza aberats eta desberdin bat, gune populatuetatik gertu egoteak arazo handirik gabe bisita egiteko aukera ematen duelako. Gainera, Euskal Herrian ez dago naturan bertan egiten den artearen erakusketa bat eta hori Europa mailan aspaldidanik egiten da. Baina ez genuen hori bakarrik egin nahi: diziplina artistiko desberdinak integratu eta Aralarren bi aldeetako bizilagunek proiektu hau berea egin zezaten nahi genuen; Aralar topagune egin nahi genuen eta azken urte hauetan galdu den harremana berreskuratu.

Zehaztutako helburuak lortu al dituzue?

Ezerezetik sortutako proiektu bat dela kontuan izanik, eta esperientziarik gabe, bitartekorik gabe eta hasiera batean lan egin behar zuten pertsonak elkarren ezagunak izan gabe, esan dezakegu itxaropenak soberan gainditu direla. Baina ez dut uste hainbesteko meritua dugunik: besterik gabe, bi aldeetako jendeak elkarrekin harremanean jarri dira komuna den

ingurumen batean, naturaz disfrutatu eta ospatu dute hain urruti ez dauden garaietan egin ohi zen bezala. Eta Europa osoan uda guztietan musika, arte plastikoak, dantza, ikuskizunak... nahasiz jaialdiak ospatzen badira gurean zergatik ez?

Zergatik diseinatu zenuen “Aundiya”, aulki erraldoia, eta zer lortu nahi zenuen?

Hasiera batean, bistan denez, Azken Muga proiektu ezezaguna zen biztanleria osoarentzat. Jendearen kuriositatea esnatuko zuen elementu bat behar genuen, Azken Mugaren inguruan hitz eginaraziko zuen zerbait, ezaguterraza izango zen zerbait eta inolako arbuiorik sortu gabe batu egingo zuena. Bestalde, proiektuaren helburuak aktibitatea eta jendearen partaidetza ziren, Aralarreko bi aldeetako jendearen arteko harremana berreskuratzea; horretarako elkartu egin behar genuen, bildu. Guk lehendabiziko aulkia bakarrik jarri genuen.

Zer azpimarratuko zenuke egindako guztitik?

Zalantzarik gabe partaide-tza, oraindik ez genekienean proiektua nolakoa izango zen inguruko herri guztiak ekarpenak egitera gerturatu izana. Azpimarratu beharreko beste alderdi bat, gauzatu den programazioaren kalitatea da. Baina, bada niri gehien azpimarratzea gustatuko litzaidaken zerbait: aurrera eramanez ekimen bakoitzaren inguruko magia ari naiz; ekin-tza bakoitzean sortu den giroa, diziplina bakoitzean sortu ohi denetik desberdina izan da: Zarateko pagopean udako ilunabar epel batean, pianoaren eta biolinaren laguntzarekin poesia entzutea ez da erraz ahaztuko zen zerbait.

Zein ikuspegi daukazue datorren urterako?

Aurten egin dugun lanaren ondoren, pilatu dugun esperientziarekin eta Azken Muga lan egin duten pertsonen artean sortu den harremanak bultzatuta, Aralarren inguruan bizi diren pertsonen lotura bezala Zarate sendotzea espero dugu. Aralar ez da izango zatitzen duen muga, bilgunea baizik eta artisten, musikarien, kirolarien, bertsolarien, dantzarien... topagunea, eta gure herriaren erakusketa bat zeinak Europako beste leku batzuetan gurea bezalako beste esperientziak ikusten lagunduko digun.

Guillermo Olmo

autor de “Aundiya”

Guillermo Olmo trabaja a los pies de Aralar, en Artola-Saletxe, uno de los pocos caseríos antiguos que se mantienen en Amezketta, en plena naturaleza y teniendo como su vecino más cercano Txindoki, artista multidisciplinar, realiza una obra impregnada de este ambiente especial y natural, ha realizado varias intervenciones en Aralar como “Atari”, el bosque quemado de San Martín en Amezketta o “Harrespilla” en Larraitz, Abaltzisketa, participa en el proyecto de Azken muga desde sus comienzos y es el autor de “Aundiya”, la silla gigante que ha recorrido los pueblos de las dos partes de Aralar presentando Azken muga.

Has estado presente en los momentos previos al proyecto ¿qué os movió a realizar una actividad de este tipo y que pretendáis lograr?

Artistas cercanos a Aralar queríamos hacer una iniciativa conjunta, ha habido alguna muestra, pero con un formato convencional en un recinto expositivo cerrado, pero Aralar nos ofrecía una posibilidad de trabajar de manera colectiva y en un medio natural, ofreciendo una oferta rica y diversa, la cercanía a los núcleos poblados permite su visita sin mayores problemas, además en Euskalherria no hay una muestra de arte en la naturaleza, algo que en Europa llevan haciendo muchos años, pero no queríamos hacer solamente eso, queríamos integrar otras disciplinas artísticas y que los vecinos de las dos partes de Aralar hiciesen suyo el proyecto, recuperando Aralar como un lugar de encuentro y su relación perdida en estos últimos años.

¿Habéis logrado los objetivos marcados?

A pesar de las dificultades que supone realizar un proyecto nuevo desde la nada, sin experiencia, sin medios y en un principio incluso, sin conocerse las personas que empezaban a trabajar, podemos decir que las expectativas han sido de sobra cubiertas, pero no creo que tengamos tanto mérito, simplemente la gente de las dos zonas ha vuelto a relacionarse en su entorno común, ha vuelto a disfrutar y festejar en la naturaleza, como se hacía no tantos años, y si en toda Europa celebran todos los veranos festivales, donde se mezclan música, artes plásticas, danza..., ¿por qué nosotros no?

¿Por qué diseñaste “Aundiya” la silla gigante, y qué pretendías lograr?

En un principio, evidentemente, Azken muga era un proyecto desconocido por toda la población, necesitábamos un elemento que despertara la curiosidad de la gente, que obligase a hablar de Azken muga, que fuera fácilmente reconocido y que uniera no causando ningún tipo de rechazo, por otra parte los objetivos del proyecto eran la actividad y la participación de la población, volver a recuperar la relación entre las gentes de las dos partes de Aralar, para ello nos íbamos a juntar, a reunir, nosotros solo pusimos la primera silla.

¿Qué resaltarías de todo lo realizado ?

Sin lugar a dudas, la participación, el hecho que de todos los pueblos cercanos se hayan acercado a aportar en un proyecto que todavía no sabíamos como podía ser, otro aspecto a destacar es la calidad de la programación realizada, pero a mi me gustaría resaltar algo que es imposible reflejar en una cuenta de resultados, me estoy refiriendo a la magia que ha rodeado cada uno de los eventos realizados, el ambiente que se ha respirado en cada acto ha sido diferente a los que habitualmente realizan en cada disciplina, oír poesía acompañada de piano y violín, al cálido atardecer de una tarde de verano, bajo las hayas de Zarate, no es algo que vaya a olvidar fácilmente.

¿Qué perspectivas tenéis para el próximo año?

Después del trabajo realizado este año, de la experiencia acumulada y de la relación creada entre todas las personas que han trabajado en Azken muga, esperamos consolidar Zarate como nexo de unión de las personas que viven en torno a Aralar, consiguiendo que Aralar no sea una frontera que divida, si no un punto de encuentro, un punto de encuentro de artistas, músicos, deportistas, bertsolaris, dantzaris..., mostrando nuestro país y nos permita ver otras experiencias como la nuestra, en otros lugares de Europa.

Migel Zeberio

Et Incarnatus orkestrako zuzendaria eta jaialdiko antolatzailea

“Aralarren amesteko, era berri baterako lanean”

Noiz izan zenuen proiektu honen berri?

Aspaldi zebilen dantzan jaialdi hau sortzeko ideia eta planteamendua. Niri iritsi zitzaidan 2014ean bertan parte hartzeko gonbitea, gure orkestrak ohitura du ekitaldi berezietan edo mendian aritzekoa, solstizio kontzertuan, etab.

Eta gero gauzatu zen?

2016an, proiektu osoa azaldu zidaten. Interesgarria eta erronka polita iruditu zitzaidan. Negu bukaeran hasi ginen gauzatzen: edukiak ixtea, inguruko herrieekin bilerak egitea bere jarrera ikusteko eta aurkezpenak aulkiarekin ekainean. Handik ekitaldiak hasi ziren hamabostero: hitzaldiak, kontzertuak, erakusketak...

Antolaketan sartu zinen, ezta?

Buru-belarri eta Guillermo Olmorekin batera uztarrria gidatzen genuen bi elementu bilakatu ginen, halaber, ez nahita niri dagokidanean behintzat, halere laguntza handia izan dugu inguruko herritarrengandik. Aldez aurretik egindako planteamendua guztion artean nola osatzen joan ginen izan zen interesgarriena.

Ekitaldietako bat Et Incarnatus Orkestra eta Tolosako Buruhandi eta Erraldoien konpar- tsaren emanaldia izan zen.

Aipatu dudan eran historia honekin izandako lehen kontaktua, orkestrarekin jaialdian parte hartzeko eskaintza izan zen eta azkenean bertan izan ginen. Aspalditik ospatzen dugun Solstizio Kontzertuaren jarraipen edo bilakatu zen udazkeneko ekinozioarekin bat egin zuelako. Eguerdian inguruko haurrentzat erakustaldia antolatu genuen tonu hurbileko eta lasaian. Musiken aniztasunak eta luxuzko lankidetzak: Bixente Martinez gitarrista, Leire Berasaluze, Kristina Aranzabe eta Lucia Gomezen ahotsak eta Juantxo Zeberioaren pianoak, Araitz bailaran inoiz entzundako harizko talde oparoaren lagungarri izan ziren. Erraldoien presentziak eta dantza eleganteak harritu zituzten gehien gaztetxoak, behingoz pago artean dimentsio errealeko ingurumarian zebiltzala zirudien. Arratsaldeko emanaldian era formalagoan bada, bertan sortu eta sentitu genuen giro magikoaren bidez inguratutakoaren kuriositatea asetzea lortu genuelakoan nago. Zarateko pagadia bezalako paraje zoragarri eta magikoak kontzertuari berebiziko gehigarria eskaintzen diote.

Haurrekin zerbaitek egiteko asmoa azaldu zenuen hasieratik.

Ekintza berezi edo interesanteena hori izan da, planteamendu pedagogiko hori. Betelu eta Araitzeko eskolarekin bakarrik lortu genuen. Deialdia jaso eta proposatutako kon- tzentu pedagogikora joan ziren. Eta udazken aldera eskultura erakusketan zehar ikustaldia egitearekin batera beraiek jaialdiari buruz izandako es- perientziak eta honengandik jaso nahiko luketenaz solasean aritzeko parada izan genuen. Lotura hau jorratzen eta aurrera eramatea da historia guzti honen zutabe nagusienetakoa. Haur eta gazteen artean filosofia hau ereitea lortzen badugu egonezin eta irrika interesgarri zintzitatek belaunaldiak loratuko dutelakoaren esperantzarekin. Eskola eta gurasoen inplikazioa ezinbestekoa izan da. Eta noski hurrengo pausoa Gipuzkoa aldeko gaztetxoekin ere esperientzia hau partekatzeko ahalegina egitea izango da.

Zein sentsazio sumatu zenuen inguruko herrietan?

Batetik inguruetako herritarrek eta udaletako jendeak harriduraz eta tentuz hartu zuen, gehienbat herri txikietan, sekula ez zutelako horrelakorik ezagutu. Gehienez herriko jaiak eta kultur asteren bat antolatzen dute urtean zehar eta honek arrisku handiagoak hartzea suposatzen zuelakoan errespetuz ikusten zuten. Erantzuna bikaina izan da beraien aldetik eta askok gogor lan egin dute. Lekuak asko ematen du beretik eta inguruko herriek ere bai. Dena den, proiektua herri gehiagotara zabaltzea nahi dugu.

Ba al da horrelako jaialdirik inguruan?

Ez, horrelako gauzarik aurretik ez da egin. Alpeetan eta Dolomitetan eta oro har Europan bai, badira jaialdi harrigarriak. Gurearen antzera ingurune zoragarrietan ospatzen dira, bakoitza bere berezitasunekin eta aurrerago harremanak izatea ere espero dugu.

Eta inguruan zein eragin sor dezake?

Aipatu ditudan helburu pedagogikoez eta herritar eta bizilagunen partaidetzaz gain, ingurumarian zenbait esparrutan mugimendua hasi da eta areagotuko dela ziurra da; lehen ekitalditik jendeen joan etorriak ostatu eta ostalari- tzen sorturikoa, eguraldi eskasagatik herrietara jaitsi ziren ekitaldien harrabotsak sorturikoa. Aurrera begira ordea antolamendua finkatuz doan heinean ekitaldi eta erakusketen kudeaketek lantxoak egiteko aukera batzuk eskainiko dituzte eta landa eremuan aktibitate osagarri bezala interesgarriak izango dira.

Nola hartu dute proiektua artistek?

Oso ondo. Aukera gehiegirik ez dago sortzaileentzat eta plataforma hau eskaintzea izugarria da. Lehen urtean parte hartu dutenek oso gustura hartu dute. Niri gehien jorratzea tokatu zaidan esparrua musikarekin zerikusia duena izan da eta guneek eta beraietan sortu den giroak asebeste eta liluratu ditu musikari, idazle, dantzari eta besteak.

Datorren urtera begira, zein asmo duzue?

Antzeko eskema bat dago aurreikusia. Kontutan izan behar da eremu guztietan jaialdiaren dimentsioa oso zabala dela: geografikoki hamaika herriren bilgune bihurtzeko helburua du, ekitaldiei dagokienean aniztasuna du erronka, kultura kontzeptuaren aldaera guztiei irekia eta bide hori ireki eta dinamika egonkorra sor-tzea ez da erronka makala. Finantziarioak baldintzatzen du egitasmoa. Hori aurretik lotu nahiko genuke, egonkortasuna emateko. Saiatuko gara inguruari lotuak dauden edo herrikoiak izan behar duten ekimenez gain sona handixeago duten ekintzak planteatzen eta kanpoan harremanak sor-tzen. Lotura batzuk bideratzen ari gara, zehazki Akitaniarekin (gure bizilagun naturala delako) eta Berlinekin (muga hiria izan delako). Udan izango litza- teke, eta halere udako beste jaialdiei itzalik ez lieke egingo, era honetakorik ez baita.

Migel Zeberio

Et Incarnatus orkestrako zuzendaria eta jaialdiko antolatzailea

“Una nueva forma de soñar en Aralar”

¿Cuándo tuviste noticia de este proyecto?

Por lo visto hacia cierto tiempo que circulaba la idea de crear un festival con este planteamiento. El 2014 me hicieron llegar la invitación de presentar un programa para el mismo, creo que porque sabían que nuestra orquesta estaba acostumbrada a este tipo de eventos como el concierto del solsticio.

¿Y después?

El 2016 me presentaron el proyecto y pareciéndome interesante lo tomé como reto. Hacia finales del invierno empezamos a madurarlo; cerrar los contenidos, reuniones con las gentes de los diferentes pueblos lindantes para pulsar su ánimo y en junio las diferentes presentaciones encima de la silla gigante, Aundiya. Luego seguimos con los eventos cada quince días: conferencias, conciertos, exposiciones...

Te metiste en la organización

Junto a Guillermo Olmo me vi capitaneando el barco sin casi darme cuenta, no era mi intención, aunque la verdad es que hemos tenido una gran ayuda de las gentes de los pueblos de alrededor. La parte más interesante y gratificante ha sido ver como se fue realizando y logrando todo lo que se tenía planificado.

Uno de los actos fue el concierto ofrecido por Et Incarnatus Orkestra y la comparsa de Gigantes y Cabezudos de Tolosa

Tal y como he comentado, el primer contacto con esta historia fue el ofrecimiento que nos hicieron para participar en el festival y al final, aunque unos años después así fue. Se convirtió de alguna manera en un apéndice del concierto del Solsticio de verano que hace tantos años venimos celebrando. Al medio día organizamos un pase especialmente relajado y cercano dedicado a los niños. La variedad del repertorio y los invitados de lujo: el guitarrista Bixente Martínez, las voces de: Leire Berasaluze, Kristina Aranzabe y Lucía Gómez y el piano de Juantxo Zeberio, fueron contrapunto perfecto para un grupo de cuerdas jamás escuchado en el valle de Arantz. Tal vez, una de las cosas que más impresionó a los presentes fue el majestuoso y elegante baile realizado por los gigantes que esta vez parecían estar en un territorio proporcionado a su colosal tamaño. Por la tarde, de una manera tal vez más formal, creo que llegamos a saciar la curiosidad de los que se acercaron gracias al ambiente mágico allí creado.

Desde el comienzo planteaste trabajar especialmente el aspecto didáctico.

Creo que enfocar las actividades desde un aspecto pedagógico enfocado hacia los niños debe de ser una de las premisas de un festival como este: la manera de trabajar el futuro. Esta primera edición logramos el objetivo únicamente con los niños del valle navarro de Araiz, se organizaron para acudir al concierto pedagógico primero y después, hacia el otoño pudimos hacer una visita al parque escultórico aprovechando este contacto para intercambiar opiniones sobre lo que estábamos haciendo y proponiendo. Mantenemos la idea de profundizar en este camino que tal vez ha sido una de las experiencias más ricas de todo el festival. Si logramos sembrar esta filosofía entre la juventud estará asegurado un fructífero futuro de generaciones inquietas. La implicación de padres y profesores ha sido indispensable y por supuesto el siguiente paso será ampliar el campo de acción hacia los valles guipuzkoanos.

¿Cuál es la sensación que habéis percibido en los pueblos de alrededor?

En un principio las gentes y los responsables municipales expresaron su asombro y reaccionaron con cautela, sobre todo en los núcleos pequeños, pues nunca antes habían conocido propuesta semejante. Su actividad se limita con gran esfuerzo a organizar la fiestas y alguna semana cultural y claro esto suponía un riesgo mayor por lo que daba cierto respeto. Pero según paso el tiempo la respuesta fue terriblemente buena, ha trabajado mucha gente y bien. Vamos a intentar extender esta colaboración a más pueblos.

¿Existe algún otro festival semejante en el entorno?

No, creemos que es la primera en su peculiaridad sin embargo son numerosos los que se celebran en Alpes, Dolomitas y en Europa, algunas de estas son impresionantes y sorprendentes. Se celebran en enclaves naturales maravillosos como el nuestro, cada cual con sus características y más adelante esperamos relacionarnos con algunas de estas.

¿Cuál es la influencia que puede ejercer en el entorno?

Además del aspecto pedagógico antes descrito y de la participación de los vecinos, es evidente que el movimiento de gentes que ya ha comenzado a producirse en el entorno, este se va a acentuar; desde la primera jornada se ha evidenciado movimiento en la hostelería y otros segmentos. Los actos que por mal tiempo fueron trasladados a núcleos urbanos también han creado un flujo interesante. Cara al futuro y según se vaya afianzando la organización, áreas como la gestión de actos y exposiciones, esperamos que vayan a ser creadoras de ciertos trabajos interesantes como complemento de la actividad económica de este medio rural.

¿Cuál ha sido la respuesta de los artistas?

Magnífica. El panorama general no ofrece grandes plataformas de presentación a la creación y esta es espectacular. La parcela con la que mayor relación he tenido ha sido la musical y en ella es evidente que el ambiente logrado y la grandiosidad del entorno han sorprendido gratamente a los artistas participantes: músicos, escritores, dantzaris y demás.

¿Cuál es vuestra intención cara al próximo año?

Se prevé partir de un esquema parecido. Hay que tener en cuenta que a todos los niveles las dimensiones del festival son muy amplias: punto de encuentro de muchos pueblos en cuanto a la geografía, en cuanto a diversidad de disciplinas el reto también es extenso, abierto al más amplio concepto de cultura. La capacidad de financiación será uno de los limitadores del mismo y uno de nuestros objetivos será afianzarlo y consolidarlo. Además de impulsar y desarrollar actividades con agentes del entorno más cercano, vamos a intentar atraer otras de mayor relevancia y crear relaciones e interactividad con otros colectivos. Estamos trabajando con una de nuestras mugas naturales como es Aquitania en la que se engloba administrativamente el País Vasco del norte y hay una línea de contacto abierta con Berlín (ciudad frontera). El festival seguirá celebrándose en verano sin por ello hacer sombra a otros eventos que se desarrollen en el entorno ya que todas ellas trabajan diferentes caminos al nuestro.

Olatz Peon

Tolosako alkatea

“Ekitaldi herrikoiak eta interesgarriak iruditu zaizkit”

Noiz izan zenuen proiektu honen berri?

Tolosan Triangulo plazan aulki erraldoia jarri zutenean pertsonalki ez nuen egitasmoaren berri. Aurretik kulturako jendearekin hitz eginda zeuden. Eta jende asko deitu zidan galdezka. Gero Guillermo Olmo eskulturagileak horixe zela helburua esan zidan: jendearen arreta lortzea eta jendeak galdetzea. Egia da herri honetan ekimen ugari antolatzen direla eta jendearen arreta lortzea zaila izaten dela. Gero, kendu zutenean, zergatik ez zuten bertan utzi behar galdetu zidaten. Oso deigarria egin zitzaion jendeari. Tolosan behintzat lortu nahi zuen eragin hori lortu zuen. Beraz, aulkiarena lehen albiste izan zen. Beno, aurretik larunbat batean Tolosako Udal Txistulari Bandak aspaldi harremana duen Iruñeko Txistulari Banda gonbidatu zuen egun-pasa eta bazkari batera Tolosara eta Joseba Asiron Iruñeko alkatea eta Uxue Barkos Nafarroako Gobernuako lehendakaria ere gonbidatu zituzten, ezer asko esan gabe. Ekitaldi xume bat egin genuen areto nagusian eta gero kalean Guillermo Olmo eskulturagilea Uxue Barkosengana hurbildu zen egitasmoaren berri ematera.

Nola bideratu zen zuen laguntza?

Antolatzaileekin bilera egin genuen egitasmoa aurkezteko. Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko muga, harreman handikoa garai batean, berreskuratu nahi zuten kultur ekitaldien bidez. Eta Udalaren babesa nahi zuten. Gustatu zitzaigun ideia. Bedaioren bitartez Nafarroarekin muga egiten dugunez, zentzua dauka gure partaide-tzak. Betiko baldintza bertako biztanleekin harremanetan jartzea izaten da. Bedaioko jendearekin hitz eginda zeuden eta erabat inplikatu ziren musutruk, askotan egiten duten bezala. Proiektuko kideek Gurbileko bidea berreskuratzeko ideia jarri zuten mahai gainean. Lehendik ere aurreko legealdietan atera zen gaia zen eta orain ere Bedaiorekin sinatu behar dugun hitzarmenean gai hori ere aipatu dute.

Zergatik erabaki zenuten laguntzea?

Polita iruditu zitzaigun herri desberdinen arteko harremana kulturaren bidez egitea. Gainera Tolosak Iruñearekin duen harremanak zentzua ematen zion proiektuari. Beraiek dena jartzen zuten eta babes pixka bat eskatzen zuen. Babes ekonomikoa jarri genuen, ez izugarria. Eta baliabide aldetik, ahal izan duguna.

Ikusle bezala izan zaren ekitaldietan zer sentitu duzu?

Hara joan eta jendearen inplikazioa ikusi nuen. Hasierako ekitaldian Zaraten aulki gainean dantzan, Txintxarri abesbatza kantari, Epelderren erakusketa eta hainbat elementu zeuden. Oso herrikoia iruditu zitzaidan eta oso polita. Erraldoien eta Et Incarnatus orkestraren kontzertua Zarateko pagadian izugarria izan zen. Urkizuko aurrekaria ezagutzen nuen, baina hura ezagutzen ez zutenentzat are izugarriagoa izan zen emanaldia.

Etorkizunerako begira, nola ikusten duzu proiektua?

Bere horretan izan zena errepikatzea edo berritzea oso ondo ikusten dut. Hain gertu dauden bi herriren artean elkartzeko aukera da eta babesa emateko prest jarraitzen dugu.

“Me han parecido unas actividades populares e interesantes”

¿Cuándo tuviste conocimiento de este proyecto?

Cuando pusieron la silla en la plaza del Triángulo de Tolosa personalmente todavía no tenía conocimiento del proyecto. Anteriormente, la organización se había puesto en contacto con el personal de cultura. Mucha gente me llamó preguntándome acerca del hecho. Más tarde, el escultor Guillermo Olmo me dijo que ese era el objetivo: el lograr la atención de la gente y que la gente preguntara. La verdad es que en este pueblo se organiza un gran número de actividades y que es difícil el atraer la atención de la gente. Más tarde, cuando retiraron la silla, me preguntaron por qué no la habían dejado en el lugar. Le resultó muy atractivo a la gente. En Tolosa, desde luego, consiguió la atención que pretendía.

Por consiguiente, la silla fue la primera noticia.

Bueno, anteriormente, un sábado, la Banda Municipal de Txistularis de Tolosa invitó a la Banda de Txistularis de Iruñea, con la cual mantiene desde hace mucho tiempo una buena relación, a pasar el día y a una comida en Tolosa. Así mismo, invitaron a esos actos al alcalde de Iruña, Asiron, y a la presidenta del Gobierno de Navarra, Uxue Barkos. Tuvo lugar un acto sencillo en el salón de plenos y más tarde en la calle y es aquí donde el escultor Guillermo Olmo se acercó a Uxue Barkos para darle a conocer el proyecto.

¿Cómo se canalizó vuestra ayuda?

Celebramos una reunión con los organizadores para presentar el proyecto. La muga entre Navarra y Gipuzkoa fue, en su momento, un punto de una gran relación entre los dos territorios y era esa relación la que querían recuperar a través de actividades culturales. Y para ello querían el patrocinio del Ayuntamiento. Nos gustó la idea. Como hacemos muga con Navarra a través de Bedaio tiene sentido nuestra participación. Como siempre, la premisa fue ponernos en contacto con los vecinos del lugar. Para entonces, se había hablado con los vecinos de Bedaio y éstos, como suelen hacer muchas veces, se implicaron a cambio de nada. Los participantes en el proyecto pusieron sobre la mesa la idea de recuperar el camino de Gurbil. En legislaciones anteriores ya se había hablado de la propuesta y actualmente también insisten en el tema en el contrato que tenemos que firmar con Bedaio.

¿Por qué decidisteis conceder la ayuda?

Nos pareció bien el reforzar la relación entre pueblos diferentes a través de la cultura. Además la relación que Tolosa tiene con Iruña da más sentido al proyecto. Ellos ponían todo y pedían algo de apoyo. Pusimos ayuda económica, aunque no demasiado grande. Y desde el punto de vista de los recursos, lo que hemos podido.

¿Qué has sentido en las actividades en las que has estado presente como espectadora?

He visto una gran implicación de la gente. El acto inicial en Zarate con el baile encima de la silla, la coral Txintxarri cantando, la exposición de Epelde y tantos otros elementos, me pareció muy popular y muy bonito. El concierto de Et Incarnatus y los gigante en el hayedo de Zarate fue espectacular. Conocía el precedente de Urkizu pero para los que no lo conocían el acto debió de ser más espectacular todavía.

Mirando al futuro, ¿cómo ves el proyecto?

Vería muy bien que el proyecto se repitiera tal cual o que se renovara. Es una oportunidad para que dos pueblos que son tan próximos se reúnan y nosotros estamos dispuestos a dar nuestra ayuda.

Nekane Izagirre

Bedaioiko bizilaguna

“Beste herriek aurrera egitea erabaki zuten eta guk ere hala egitea pentsatu genuen”

Nola izan zenuten proiektuaren berri?

Guillermo duela bi urte hasi zen lantzen. Proposamena egin zuen Bedaion, hasieran beldurra zegoen, ez proiektua polita ez delako, harrigarria da, baina dena aidean zegoen eta normalean dauzkagun ekin-tzak ezin aurrera atera ibil-tzen garenez handi zetorkigun zerbait zela pentsatu genuen. Hilabetero ekitaldi asko pentsatuta zeuden eta....

Noiz erabaki zenuen proiektuan laguntzea?

Aulkiak mugitu zuen dena. Herriz herriko ibilian, horrek eman zion publizitatea. Herri batzuk konprometitzen hasi ziren, Altzo, Azkarate, Betelu eta Alegia, aurrera egitea erabaki zuten eta guk ere aurrera egitea pentsatu genuen kontutan izanik Tolosako parte garela eta Udalak ere babesa eskaini zuela.

Zer iruditzen zaizu Azken Muga?

Gustatzen zait proiektua, Azkarate eta Betelu aldeko jendeekin elkar ezagutzeko balio badu, ondo. Aberasgarria. Aukera polita izan da hemen entzuteko Donostian edo Tolosan bakarrik entzun daitezkeen kontzertuak. Lehen urtea izanik, jendea erakarri du. Positiboa izan da oihartzun hori lortzea.

¿Como tuvisteis conocimiento del proyecto?

Hace dos años que Guillermo comenzó a trabajar. Hizo la propuesta en Bedaio y en un principio se recogió con cierto temor, no precisamente porque no fuera hermoso, sino más bien porque era asombroso, todo estaba en el aire, y debido a que las actividades que nos proponemos normalmente nos cuesta mucho en sacar adelante, pensamos que el proyecto que se nos ofrecía nos venía grande.

¿Cuándo decidiste ayudar en el proyecto?

Fue la silla la que movió todo. En su trayecto de pueblo en pueblo, fue lo que le dio publicidad. Algunos pueblos comenzaron a comprometerse: Alzo, Azkarate, Betelu y Alegia decidieron dar un paso adelante y nosotros también pensamos en colaborar, teniendo en cuenta que somos parte de Tolosa y el Ayuntamiento también ofreció su patrocinio.

¿Qué opinión tienes de Azken Muga?

Me gusta el proyecto. Si sirve para conocer a gente del entorno de Azkarate y Betelu, estupendo. Es enriquecedor. Ha sido una buena oportunidad para escuchar aquí conciertos que solo se pueden escuchar en Donostia o Tolosa. Teniendo en cuenta que es el primer año, ha atraído a mucha gente. Ha sido positivo el haber logrado esa repercusión.

Imanol Artola ‘Felix’

Bertso saioan gaijartzaile. Amezketa

“Bertso egun magikoa Altzon”

Zure ibiliak Azken Mugan nola dituzu gogoan?

Altzoko bertso eguna magikoa izan zen. Euria zela medio Zaraten egin beharreko bertso eguna Altzora jaitsi behar izan genuen. Azken orduko aldaketa baina, jendeari garaiz abisatu zitzaion eta bazkaltzeko ordurako guztiok bertan ginen. Pena zen hasieran Zaraten bertso eguna ospatu ezina, baina hasieran bakarrik. Frontoiak giro ezin hobean bazkaldu genuen. Nire bigarren saioa zen txapelketaz kanpo. Altzoko ermita beteta eta jendea kanpoan. Sei bertsolari on eta giro goxoa. Nik gaiak emateko garaian ezin nuen huts egin! Saioa goian hasi bazen, zeruan amaitu zen. Andoni Egañari eta Angel Mari Peñagarikanori entzunda, beraien urteko saiorik onenetarikoa. Eta jendea ere pozarren atera zen. Magikoa izan zen. Mendian nolakoa irtengo zen ez dakigun arren, eskerrak euria egin zuen.

Horrez gain Beteluko erromeria egunean ere izan nintzen. Egun hartan ere eguraldi txarra medio, korrika eta presaka, goizean erabaki genuen lekuz aldatzea. Errepide ertzean kartelak jarri eta jendea Betelura bideratu genuen Bedaiotik. Goizeko ekitaldia frontoira mugatu bazen ere, interesgarria izan zen eta jendeak curiositatea izan zuen gure ote jotzearekin eta toberekin. Segidan bazkari bikaina eta eguraldiak hobera egin zuenez, frontoitik plazara erromeria, Aiko taldea musika jotzen eta ehun dantzarik gora. Hura zen plazaren itxura hura! Batzuentzako ez zen erromeria, dantzak nola egin azaltzen zutelako eta betiko fandango, arin-arin eta pasodobletik harantzagoko dantzak ere esplikatzen zituztelako. Niretzako, benetako euskal erromeria izan zen, zazpi probintziatako dantzak dantzatu genituelako.

Azken eguneko Et Incarnatusen kontzertuan ikusle soil izan nintzen. Lurrean etzan eta hango pagozelaian etzan, ahozgora jarri eta haizeak udazken koloreko zuhaitzak mugitzen zituen bitartean hamabost musikari zuretzako espresuki jotzen entzuteak ez dauka preziorik!

Antolakuntzak lana badakar ere, ondoren uzta jasotzen bada, aho-zaporea gozoa izan ohi da.

Zure ibiliak Azken Mugan nola dituzu gogoan?

El bertso eguna en Alzo fue mágico. Debido a la lluvia en lugar de celebrarse en Zarate tuvimos que bajar a Alzo. El cambio de última hora se puso a tiempo en conocimiento de la gente y a la hora del almuerzo todos estábamos en el lugar debido. En principio se tomó con pena el hecho de que no se pudiera celebrar el bertso eguna en Zarate pero la verdad es que celebramos la comida en el frontón en un ambiente inmejorable. Era mi segunda actuación al margen del campeonato. La ermita de Alzo repleta y la gente en el exterior. Seis buenos bertsolaris y un ambiente acogedor. Por mi parte, no podía cometer un error al presentar los temas! Si bien la función comenzó en un tono muy elevado, terminó en el cielo. Andoni Egaña y Angel Mari Peñagarikano nos ofrecieron una de sus mejores actuaciones. Y al gente llena de alegría. Fue algo mágico. Aunque no podemos saber cómo hubiera resultado en el monte, la verdad es que dimos las gracias al hecho de haber llovido.

Por otra parte, también tuve la suerte de estar en la romería de Betelu. Fue un día desapacible y por la mañana, de prisa y corriendo, decidimos cambiar de lugar. Pusimos unos carteles en los bordes de la carretera y orientamos a la gente desde Bedaio a Betelu. La actividad de la mañana se redujo al frontón y fue interesante la curiosidad que despertó en la gente el sonido de nuestra percusión de argoma y las toberas. Seguidamente, tuvo lugar un almuerzo excelente y a continuación, puesto que el tiempo mejoró, pasamos del frontón a la plaza para la romería con el grupo Aiko y cientos de dantzaris. ¡Qué hermoso el aspecto que presentaba la plaza! Para algunos no era una verdadera romería ya que más allá del fandango de siempre, los arin-arin y pasadobles se daba una explicación de los bailes. Desde mi punto de vista fue una verdadera romería vasca, puesto que bailamos los bailes de las siete provincias.

En el concierto del último día de Et Incarnatus fui un simple oyente. Tumbado en el suelo del hayedo, mirando al cielo y mientras el viento movía los árboles de color otoñal, el escuchar el sonido producido expresamente para ti por quince músicos, no tiene precio.

A pesar de que una organización de este tipo acarrea mucho trabajo, el sabor de boca suele ser dulce cuando se recoge lo sembrado.

Idoia Besada

2016ko Euskal Herriko Dantza Solteko txapelduna

Campeona del concurso de baile al suelto 2016 de Euskal Herria

2016. Azken Muga jaialdia itxi zuen garo meta egiteko ekitaldian parte hartu zenuen, zer datorkizu burura?

Oroimen oso ona gordetzen dut egun horretaz. Egia esateko sekula ikusi gabe neukan garo meta nola egiten zen eta horrelako esperientzia bizi-tzeak asko gustatu zitzaidan. Elkarlanean egin zen eta hainbeste jende garo meta egiten, interesgarria izateaz gain, benetan gomendagarria izan zela esango nuke. Eguneko konpainia ere ezin hobea izan zen eta Rexu Balerdirekin dantzan izatea plazerra, ahaztuta baitaukagu aspaldi nola egiten zen dantzan. Errepikatzekeo esperientzia dudarik gabe!

Participaste en el último evento (la construcción de la Meta de Helecho) del festival Azken Muga 2016. ¿Qué recuerdo guardas?

Fue una jornada memorable, nunca antes había presenciado y menos participado en la construcción de una Meta y me gustó la vivencia. El trabajo en colaboración y con un grupo tan numeroso de gente, me parece aparte de interesante una experiencia recomendable. La compañía que tuve a lo largo del día fue inmejorable y que decir del placer que supuso bailar con Rexu Balerdi, tenemos olvidada la manera de bailar que tenían antaño. Sin duda alguna: ¡Una experiencia a repetir!

Mikel Andueza

JazzarAten parte hartutako Saxo jolea

Zer dakarkuizu burura Azken Mugak?

Familia giroan partekatzeko opari bikaina da Azken Mugako ekitaldiek eskeintzen duten aukera.

¿La propuesta Azken Muga que te sugiere?

Azken Muga es una iniciativa muy especial, un gran regalo para compartir en familia.

Azken-mugara iritsi gara. Goian da. Baso erdian, arrats erdian.

Ez dugu inor ezagutzen eta dena ezagun egiten du basoak.

Urrunetik bibolin eta pianoaren notek gidatu gaituzte, gero hego-farfailak hostoetan, garo eta orbel gordeak irakurri eta musika jotzeko tokietan.

Gelditu egin dira erlojuak; hurrek ere ez du ez tulik egin.

Azken-mugan jasoko gaitu berriro ere naturak, ezertarako ahalgorik ez eta izan garen guztia gogoratzera etortzen garenean.

Eta ez da muga gehiago izango. Erortzen diren hostoen basoan izango gara berriz oso.

Tere Irastorza